

GPS OINARRIZKO ERABILERA-GIDA

Zer da?

GPS gidek genero-ikuspegia duten gazteentzako orientazio akademiko-profesionaleko proiektu bat osatzen dute, eta bai prestakuntza-ibilbidea aukeratzeko, bai etorkizuneko lanbide-plangintza egiteko laguntza eskaintzea dute helburu.

Nori daude zuzenduta?

GPS gidek **hiru** hartzaile nagusi dituzte:

- **Gazteentzako gida:** DBH-ko bigarren ziklotik aurrerako ikasle gazteei edo lana bilatzeko prozesuan daudenei zuzenduta, eskura dauden orientazio-baliabideei, dauden prestakuntza-aukerei eta lan-munduko kontzeptu garrantzitsueni buruzko informazioa eskaintzen du.
- **Irakasle eta orientatzaileentzako gida:** ikastetxeetako irakasle edo orientatzaileei zuzenduta, bideo-lantegiak, generoen arteko aukera-berdintasunarekin, prestakuntzarekin eta enpleguari buruzko lan-fitxak (blokeka banatuta) eta zenbait eduki gehigarri eskaintzen ditu.
- **Familiarentzako gida:** ikasle edo lana bilatzeko prozesuan dauden gazteen gurasoei zuzenduta, eskura dauden orientazio-baliabideei eta dauden prestakuntza-aukerei buruzko informazioa eskaintzen du.

Erabilera

Gazteentzako eta **familiarentzako gidek** pertsona bakoitzaren premien arabera hainbat informazio-baliabide kontsultatzeko estekak dituzte, beraz, erabilera autonomoko gidak dira. **Irakasle eta orientatzaileentzako gidaren** bideo-lantegiek eta eduki gehigarriek ere metodologia hori dute.

Irakasle eta orientatzaileentzako gidaren lan-fitxak, ordea, ikastetxeetan tailer moduan emateko diseinatu-ta daude. Horretarako, jarraibide hauek eskaintzen dira:

- Fitxa guztiak zenbakituta daude eta izenburuaren azpian zein bloketakoak diren (laranjaz) eta zein hezkuntza-mailatan egitea gomendatzen den (berdez) adierazten da.
- Fitxa guztiek egitura bera dute:
 - “*Helburuak?*” atalean, fitxa landuta lortuko diren helburuak zerrendatzen dira.
 - “*Materialak*” eta “*Nola egingo da?*” ataletan, jarduketa-proposamena egiten da, egin beharreko jarduerak eta horien iraupena eta lantzeko modua azaltzen da eta eduakiaren arabera behar den materiala zehazten da. Materialak horietan sartzeko esteka batekin batera adierazten dira.
 - “*Sakontzeko...*” atalean, eduki interesgarriak proposatzen dira. Hauek ez dira nahitaez erabili behar, baina onuragarriak izan daitezke sor daitezkeen zenbait zalantza argitzeko.
- Oro har, lan-fitxak independienteak dira elkarren artean, beraz, bereizita egin daitezke. Dena dela, eduki batzuk lantzeko komenigarria da aldez aurretik edo hurrengo saioetan beste fitxa batzuk lantzea. Horrela bada, gomendio hori fitxan adierazita dago.
- Fitxa bakoitzean ekintza bat edo bi proposatzen dira, 55 minutu inguruko iraupena dutenak.
- Fitxen jarduerak paperezko zein online bertsioan egin daitezke, baina hasiera batean paperean egiteko diseinatuta eta orientatuta daude.
- Fitxa bakoitzean landutako dokumentu eta/edo jarduera guztiak PDF-n daude eskuragarri “[GPS lan-fitxen jarduerak](#)” izena duen eranskinean.